

Artea ikasbide

- Irekiera- eta ixte-datak: Ekainaren 11tik abuztuaren 25era
 - Kokalekua: 103B aretoa
 - Babeslea: BBK Fundazioa
-
- EAEko ikastetxeetako 6 eta 12 urte bitarteko 129 hurrek sortutako artelan orijinalak ikusgai izango dira Museoaren 103B aretoan.
 - *Artea ikasbide* programaren helburua da hurrei eskola-curriculumaren gaien ikasketa erraztea, joko eta jarduera artistikoak eginda.

“Margotu dugu, dantzatu dugu, plastilina egin dugu eta letrak egin ditugu. Oso ongi sentitu naiz Guggenheim Museoan.” Hori esan du 3. mailako ikasle batek, Gasteizko Judimendi LHlkoak, *Artea ikasbide* programan izandako esperientziaz mintzo. Aurten hamaseigarren edizioa duen ekimen hau ekainaren 11tik abuztuaren 25era egingo da.

Erakusketa hau Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren lankidetzari eta BBKren babesari esker egin da. Museoaren 103B aretoa eszenatoki artistiko bihurtu dute, haurrak benetako abentura sortzaile baten protagonistak izan daitezten.

Oraingo honetan, Elsie Ansareo, Naia del Castillo, Ibon Garagarza, Maider Lopez, Iñaki Gracenea eta Jorge Rubio artistek, EAEko sei ikastetxeetako irakasleekin batera, tailerrak diseinatu eta dinamizatu dituzte, hurrek ustekabeko sormen-lan berezi-berezi hauek egin ditzaten.

“Umeek, beren maketen bidez, beren ametsak objektu bihurtu dituzte, partekatzeko ametsak, bizikidetzak hobetzeko. Batzuetan eszeptizismotik, aldaketa horiek utopia direla pentsatuta; beste askotan, aldiz, noizbait beteko zaigun nahiaren ilusioarekin. Arteak balio izan digu ideia horiek egia bihurtzeko, aukera eman digu etorkizun hobe bat pentsatzen; historian zehar askotan gertatu den bezala, aukera eman du errealitate desberdin bat asmatzeko. Ez diezaiozun amesteari utzi.” Iñaki Graceneak hitz horiekin laburtu zuen Irungo Belaskoenea LHlko ikasleekin bizi izandakoa.

Ilusioz betetako sei proiektu

Artea ikasbide erakusketa osatzen duten 129 “artistak” Euskal Autonomia Erkidegoko sei ikastetxetakoak dira.

Gasteizko Judimendi LHlko 3. mailako ikasleek manifestu bat egin zuten beren balore eta interes komunen adierazle diren hitzekin, hala nola, “jolastu”, “partekatu”, “errespetua” eta “lana”. Hitz horietatik abiatuta, beren gorputzekin alfabetoaren letrak egin zituzten; gero, marrazki bihurtu zituzten eta kamisetetan inprimatu. Azkenik, manifestua antzeztu zuten taldean.

Zeberioko Zubialde LHlko 5. eta 6. mailako gelek esperimentatu egin zuten artea eta ingurune hurbilaren arteko harremana, eta ikasi egin zuten kontzeptuak ordenatzen eta horiei irudi bat ematen. Modu horretan, Zeberio herriaren ikus mapa egin zuten eskulturak erabilia.

Bestalde, Arrankudiagako LHlko 5. eta 6. mailako ikasleek beren herrirako arte publikoaren obrak sortu zituzten, inguruko fatxadak aztertu ostean, eta Arrankudiagako toki enblematikoenak —zubiak eta ibaia, esaterako— kokatu eta gero.

Santurtziko LHlko 6. mailako haurrek beren ingeles-maila hobetu zuten errimak eta hizkuntza-jokoak eginez. Hori baliatuz, poema bat idatzi zuten hizkuntza horretan. Horretarako, inspirazio-iturri izan zituzten hizkuntza sormen-tresna modura erabiltzen duten artista kontzeptual batzuk, Jenny Holzer eta Sophie Calle, esaterako. Gero, beraiek diseinatutako pankarta handi bat sortu zuten.

Eibarko Arrateko Andra Mari LHlko 3. eta 4. mailako ikasleek matematikak modu ludiko eta dibertigarri batean landu zituzten. Jolasen bidez, zenbaki multzoak aztertu zituzten eta pertsonak eta objektuak neurtu zituzten; gelako toki desberdinak soka eta kolorezko zinten bidez lotu zituzten, adibidez.

Azkenik, Irungo Belaskoenea LHlko 6. mailako ikasleek beren ingurune hurbila aztertu zuten, eta auzotarrei galdetu zieten nolakoa zen lehen Belaskoenea eta nola joan den aldatzen azken urteotan. Amaitzeko, ikasleek gaur egungo auzoaren maketa bat sortu zuten, eskalan egina; gainera, hobetzeko proposamenak txertatu zituzten.

New York – Bilbao

1999az geroztik, *Artea ikasbide* programak parte hartzen duten ikasle, artista eta irakasleei aukera eman die arte-hezkuntzaren bidez kultur trukean aritzeko Lehen Hezkuntzako EAEko ikastetxeen eta New Yorkekoen artean. Ikasturtean, bi gelek, Bizkaiko Arrankudiaga LHlkoa bata eta Manhattango PS42koa bestea, posta elektronikoa, informazioa eta argazkiak trukatu zituzten Internet bidez. Helburua honako hau zen: paisaiak, sormen-prozesuak eta hain urrun dauden bi hirien arteko bizimoduak konparatzea. Ibon Garagarza eta Jen Cecere artisten laguntzaz, haurrek herrialde bakoitzaren janari, hizkuntza, jantzi eta ohiturei buruzko gauzak ikasi zituzten.

Hamasei urtez *Artea ikasbide*

2.381 ikasle, 28 artista, eta EAeko hiru hizkuntza-ereduetako Lehen Hezkuntzako 168 irakasle eta 115 ikastetxe 1998tik aritu dira lankidetzan Guggenheim Bilbao Museoaren hezitzaileekin, *Artea ikasbide* programa lantzen.

Hezkuntza-programa hau New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museoan sortu zuten. 1970ean, Natalie K. Lieberman mezenasek jarri zuen abian, hiriko Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan arte-irakaskuntza kendu zutenean, egoera horri erantzuteko.

Helburua: Eskola-curriculumua sendotzea jarduera artistikoen bidez, eta edozein arlo har dezake, besteak beste, Ingurunearen Ezagutza, Matematikak, Hizkuntza eta Literatura. Aldi berean, ikasleei irakatsi egiten zaie munduari sormenez eta beren kabuz begira diezaioten, idazketa eta mintzamina hobe dezaten, eta zenbait balore beregana ditzaten, hala nola, talde-lana, bizikidetzaren beste kulturekin, edo ingurunearekiko errespetua.

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketing Saila
Tel. +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.es
www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museoari buruzko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.es (prentsa-eremua).